

Ikertalent programa 2022 – Nekazaritzaren, arrantzaren eta elikagaigintzaren sektoreko zientzia-teknologiaren eta enpresaren alorretan langile ikertzaileentzako eta langile teknologoentzako laguntzak

Xedea

2022ko ekitaldirako, doktoratu aurreko ikertzaileen programako hamabi laguntzatarako deialdia egiten da.

UPV/EHUk ez du onartuko teknologoaren prestakuntza-programarako eskaerarik.

Kontratuen iraupena eta ezaugarriak:

Doktoratu aurreko laguntzen iraupena 4 urtekoa izango da.

Doktoratu aurreko kontratuen urteko ordainsari gordina 19.000 € izango da lehenengo urtean, 20.000 € bigarrenean, 22.000 € hirugarrenean eta 28.000 € laugarren urtean. Gainera, onuradunek 8.000 euroko laguntza osagarria jasoko dute, 2.000 euro prestakuntza-urte bakoitzeko (doktoregoko matrikula-gastuak, kongresuetara joatea, egonaldi laburrak, etab.).

Eskainitako proiektuak

Eskatzaileek gehienez 3 proiektutan eskatu ahal izango dute laguntza.

UPV/EHUren jarduera-proiektuak deialdiaren ERANSKINEAN jasotzen dira.

Proiektuak hautatzeko hurrenkera loteslea izango da.

Eskatzaileek bete beharreko baldintzak:

- EBko herritarra edo EAEn bizi den atzerritarra izatea.
 - EAEko udalerrri batean erroldatuta egotea 2022ko urtarrilaren 1etik, gutxienez.
 - Erkidegotik kanpoko pertsonen kasuan, bizileku-baimena izatea.
 - Nekazaritza, arrantza eta elikadura gaietan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailaren antzeko laguntzarik ez izatea.
 - Zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.
 - Zigor penalik edo administratiborik ez izatea.
- g. DOKTORATU AURREKO LAGUNTZETARAKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK:
https://www.euskadi.eus/dir_u_laguntza/2022/ikertalent-programa/web01-tramite/eu/

Eskabideak aurkezteko modua eta epea:

Hautagaiaren ardura izango da eskabidea telematikoki betetzea, deialdiaren 4. artikulua araber. Eskabideak aurkezteko epea 2022/11/30etik 2022/12/29ra bitartekoa izango da. **UPV/EHUko Erregistro bulegoak ez dira baliozkotzat joko deialdi honetan eskabideak aurkezteko.**

UPV/EHUko TRAMITEA

Behin eskaera erregistratuta, UPV/EHUen eskainitako proiektuetako bat eskatzen duten hautagaiak, alta tramitea errazteko laguntza emanez gero, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute PDF formatuan pre-postdo.dgi@ehu.eus helbidera:

- Eskaera egiteko formularioa
- Proiektuen hautaketa justifikatzeko memoria
- Curriculum vitae
- NANaren fotokopia

EUSKO JAURLARITZA / HARREMANETARAKO:

Idoia Sasigain
945 01 96 90
e-mail: i-sasigain@euskadi.eus

Informazio gehiago

https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2022/ikertalent-programa/web01-tramite/eu/